



## KOMUNIKAZIO-JARDUERA:

### Infografia

Jarduera honetan gai baten inguruko informazioa bildu beharko dute ikasleek.

Nahi izanez gero, irakasleak berak emango die informazioa ikasleei.

Ondoren, gai horren inguruko posterra sortu beharko dute ikasleek taldeka. Horretarako, honako urratsak jarraitu beharko dituzte:

- Informazioa hautatu eta sailkatu:
  - Lehen mailakoa
  - Bigarren mailakoa
  - Hirugarren mailakoa
- Ondoren informazio horietako bakoitza ze modutan adierazi pentsatu:
  - Lehen mailakoa: irudi garatu, erakargarri eta handiena
  - Bigarren mailakoak: marrazki sinpleak eta grafikoak
  - Hirugarren mailakoa: testuak

Amaitzeko, posterra burutu beharko dute taldean. Nahi izanez gero, posterra gelan aurkeztu dezakete ikasleek.

## GELAKO MATERIALAK

Jarduera hau egiteko beharrezko materiala eranskinetan aurkituko duzu.



## **KONTUAN IZAN**

- **HELBURUA**

Jarduera honen helburua ikasleek informazioa bilatu, sintetizatu eta hau irudi bidez komunikatzeko ahalegina egitea da. Kontuan izan behar da jarduera konplexua dela, eta urrats asko eman behar direla. Hala beraz, beharrezko ikusiz gero, hurrats bakoitzaren ostean balorazio bat egin daiteke, adibidez ikasleek informazioa sailkatzen dutenean.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Informazioa bilatu, antolatu eta irudi bidez komunikatzea.

